
SAN FAUSTO
JAIAK 2022
DURANGO
URRIAREN
12tik 23ra
JAUME GUBIANAS 2022

Hiru urte igaro behar izan dira berriz “Gora San Fausto!” gure indar eta gogo guztiekin oihukatzeko. Eta durangar gisa esan behar dut bihotzez oihukatuko dudala. Hilabete oso zailak igaro ditugu, baina bi urteren ostean Patxikotxu eta Pantxike gure zain daude berriz ere, kalera irteteko gogoz beterik.

Azken hiru urteetan gauza asko aldatu dira gure bizitzetan. Gutako askok maite dugun pertsonaren bat galduko genuen bidean edota nagusiagoak egin gara, baina pandemia honek sekula ez digu bizitzaz gozatzeko grina kenduko.

Eta San Faustoak, hein handi batean, horixe bera dira: neurtu ezin diren gauzez gozatzeko aukera. Kalejiretan edota barraketan gure seme-alaben zein iloben irribarreaz gozatzea, lagunekin edota kuadrillarekin Sukalkira joatea edota Ezkurdin zein txosnetan bokata goxo bat afaltzea kontzertu gogoangarri bat ikusten dugun bitartean. Momentu txikiz betetako egun mundialak dira.



**Baina ez dezagun ahaztu gure alaitasuna ezin dela guztion errespeturako oztopo izan. Horregatik zaindu dezagun elkar, errespeta gaitezen eta itzul gaitezen denok onik etxera.
Eta gogoratu: Ez beti da Ez.**

**Azkenik, oroitu ditzagun arrazoi batengatik edo besteagatik egun berezi hauetan gure alboan egon ezin direnak.**

## EGUN EDER HAUETAZ GOZATU, MEREZI DUGU ETA. GORA SAN FAUSTOAK!



**Ima Garrastatxu**
*Alkate andrea*






## AMPARO EREÑAGA ERZILLA ETA MARISA BARRENA LARRUZEA

### ANDRA FEMINISTA ETA EUSKALTZALEAK

Gaztetxotatik feminismoaren iturrietako ura edan dugun emakumeak gara. Ur hori geure inguruan zabaltzen eta banatzen ahalegindu garen andrak gara, amak gara, amamak gara. Gaztetxoak ginela gizarte parekideago baten aldeko borrokan sartu ginen eta hortxe dihardugu, txiri-txiri, urratsez urrats.

Gizon eta emakumeok elkarrekin pozik eta armonian bizitzeko herria eraiki gura dugu. Inork ez zigun esan erraza izango zenik, baina inongo indarkeriarik gabeko gizartea lortzeko pausoak ematen saiatzen gara, noiz edo noiz gure helburua lortuko dugun esperantzan.

Herri euskalduna amesten dugu eta horren alde ari gara, etengabe, inor baztertu barik, baina etxean, kalean zein lagunartean gure hizkuntza erabiliz. Gurasoengandik jaso genuen altxorra jagon eta biziberritu guran.

Durango harrera herria irudikatzen dugu. Kanpotik datozenei ateak zabaltzearen alde gaude, inor ez dadin ilegala izan, inor ez dadin arrotz sentitu. Espetxeetako ateak ere zabaldu eta presoak etxeratzea dugu amets.

Klase diferentziak limatu eta soldata eta pentsio duina aldarrikatzen dugu, inork gabeziarik sufritu ez dezan eta karitatetik bizi ez dadin.

Izan zirelako gara eta garelako izango diren itxaropenean bagiltza.

**DISFRUTATU DURANGOKO JAIETAN**
**GORA ERASORIK GABEKO JAIAK**
**GORA GIZON ETA EMAKUME LIBREAK**
**GORA PANTXIKA ETA PATXIKOTXU!**

**“Hasieran bertan ekibokatu baginen euskaldun sortzean,**
**antzera tronpatu ginen emakume jaiotzean ere,**
**bigarren mailako hiritar,**
**urratzen errazagoak diren eskubideekin,**
**Egoera iraultzeko,**
**beharko genuke lokatzetan sartu,**
**eta borrokan jarraitu”**

# LANDAKO ESKOLA, NON BURUA BIHOTZAREKIN HEZTEN DEN

LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA
*Hazi, hezi, hegan egin*



Gure oinak eta gure doinuak aspaldi dabiltza inguru hauetan dantzan.

Gure ikastetxea 1979an zabaldu zen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin.

Hamar urte beranduago, Amara Berri proiektuan sartu ginen.

Amara Berri Sistemaren sustraiak 1972koak dira, Loli Anaut irakasle ospetsuaren gidaritzapean, Durangoko Taldearen esperientzia bezala ezagutu zen proiektu pedagogiko berritzailearen lehen pausoak eman zirenean. Sistema irekia delarik, berritzailea izaten jarraitzen duen proiektua da, gizarteak dakartzan erronkei aurre egiteko malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna duelarik. Zaharrak, gazte dirau.

Gaur egun, Amara Berri Sistema aurrera eramaten duten beste hogeita bat eskolekin koordinatzen eta elkarlanean aritzen gara, sare bat osatuz.

Landako Eskolak, Durangoko herriak bezala, ateak irekiak ditu Durangotik zein munduko edozein muturretatik datozenentzat, guztien eta guztientzako eskola publiko eta euskalduna delako. Ikasleak dira gure eskolako bihotza badakigulako umeak direla etorkizuna, gizarteak duen altxorrik handiena eta, beraiek protagonista eginda luzatzen dugu gure leloa, **Hazi, hezi, hegan egin.**

Elkarlana gure oinarrietako bat izanda, eta guztiok beharrezkoak garelako, eskerrak eman nahi dizkiogu Landako Eskola lur emankor bihurtzen laguntzen diguten eskolako familiei, eskola osatzen duten estamentu desberdinei, Durangoko Udalari, herriko beste ikastetxe, elkarte eta erakundeei, gurekin batera bidea egiten laguntzeagatik, Durangoko etorkizuneko herritarrak heztea delako guztion ametsa eta xedea.

**GORA PANTXIKE, GORA PATXIKOTXU ETA GORA DURANGOKO UMEAK!!**

**GOZATU DURANGOKO JAIAK!!**



MURALESLIAN

# SAN FAUSTOETARAKO ERASO SEXISTAREN KONTRAKO DEKALOGOA



1. Jaietan harreman osasuntsu, aske eta berdintasunezkoak sustatuko ditugu, errespetuan eta tolerantzian oinarrituak.
2. Denok izango dugu jaietan berdintasunean primeran pasatzeko eskubidea, giro osasuntsu eta atseginean.
3. SOILIK BAI DA BAI. Ados zaudeten jakin behar duzu; isiltasuna ez da baimena.
4. Onartu BETI ezetza erantzun gisa, tematu barik. Emakumeak ez jazarri eta ez jarraitu.
5. Alkohola eta beste sustantziak ez dute INOIZ erasoa justifikatzen.
6. Ez dugu ez txiste, ez piropo, ez burla sexistarik onartuko.
7. Emakumeen itxura, jarrera edo janzteko modua errespeta dezagun, askatasun pertsonala bermatuz.
8. Eraso matxisten aurrean jarrera aktiboa izango dugu: ez dugu beste alde batera begiratuko, horrek konplize egiten gaitu eta.
9. Indarkeriaren biktima den edozein emakumeri laguntza eta babesa emango diogu, hartu duen erabakia errespetatuz, horrekin bat etorri ez arren.
10. Erasoren bat sufritu edo ikusi ezkero, deitu 747459584 telefonora.

# SAN FAUSTOETAN ERASOEN KONTRAKO ARRETA ETA INFORMAZIO ZERBITZUAK



## GUNE MOREA

LANDAKOKO
TXOSNAGUNEAN
22:00etatik 01:00etara
Urriak 14, 15, 21 eta 22

ERASO SEXISTARIK EZ!

## ERASOTUA IZAN BAZARA EDO ERASOREN BAT IKUSTEN BADUZU, EKIN!

24 ORDUTAKO ARRETA ETA
ESKUHARTZERAKO TELEFONOA

**747 459 584**

Urriak 12, 13, 14, 15, 16, 21, 22, 23





## BEHARREZKOA DELA ERE USTE BADUZU, DEITU:

**112 SOS DEIAK**

ERTZAINTZA DURANGO

**94 466 93 00**

UDALTZAINGOA DURANGO

**94 603 00 10**

# SAN FAUSTO JAIAK 2022

## JAKINARAZPENAK

- Jaietan, eta bereziki San Fausto egunean, animatu egiten zaitugu Durangoko jantzi tradizionala janztera (alkondara zuria eta gona edo praka urdinak).
- 16 urtetik beherako umeek debekatuta dute helduentzako “Zezenak dira” ekitaldian parte hartzea.
- Jai Batzordeak eskubidea du egitarauan aldaketak egiteko.
- Egitarauan aldaketarik balego, herritarrentzako informazio puntuetan, **Durango Kulturaz Blai** app-an eta **www.durango.eus** webgunean agertuko dira.
- Udalak ez du erantzukizunik izango jai ekitaldietan gertatu litezkeen istripuetan.

## OHARRAK

- Saltzaile ibiltarien gunea Askatasun Etorbidean kokatuko da.
- Barrakak Tadu aparkalekuan egongo dira (Ertzaintza etxearen aurrean). Sensibilitate bereziko umeentzako egunak (musika eta zaratarik gabe): urriaren 14, 17 eta 21ean, 17:00etatik 19:00etara. Urriaren 20an, barraken prezioa %50ekoa izango da.
- Txosnak Landako Guneko plazan kokatuko dira. Txosna gunean egingo diren ekintza guztiak Txosnen Batzordeak antolatutakoak dira.
- **Bizkaibus-en zerbitzuak:** 22:30ak eta 6:30ak artean Bizkaibusen bakarrik bidaiatzen duten emakumeek aukera izango dute lineako geldileku ofizialak ez diren geldialdiak eskatzeko (401/2019 Foru Agindua). Autobusa hiri bideetan gelditukodа espaloiaren ondoan edo oinezkoen pasabideen gainean, betiere, argia dagoen lekuetan eta inguruan eraikinak dituztenetan.





# ERAKUSKETAK

## EZKURDI UDAL ARETOA

**XXII. "DURANGO HIRIA"**
**LEHIAKETAKO MARGOLANEN ERAKUSKETA.**
**Urriaren 7tik 16ra.**

**Ordutegia:** egunero 18:00-20:00.

Larunbat, igande eta jai-egunetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

*Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkartea.*

## SAN AGUSTIN KULTUR GUNEA

**ARGAZKI LEHIAKETAREN ERAKUSKETA.**
**Azaroaren 16tik 20ra.**

Sari banaketa, **azaroaren 13an**, igandea, 13:00etan.

*Antolatzailea: F-STOP Argazki Elkartea.*

## DURANGO IRRATIA (107.8 FM)

**SAN FAUSTO JAIETAKO PROGRAMAZIO BEREZIA**
**Urriaren 12tik 23ra bitartean.**

**Tertuliak:** Goizeko 11:00etatik aurrera herriko eragile desberdinekin.




**08:00** **Perretxikoen bilketa. Irteera Ezkurditik.** *Antolatzailea: Errotari Elkarte Mikologikoa.*

**09:00–14:00** **XII. Durangoko Azoka ekologikoa Andra Marian.** *Antolatzailea: Marisatsa elkartea.*




**11:00** **XXII. Mikologia erakusketaren edizioa. XXI. Argazki mikologikoen lehiaketa eta perretxikoak sailkatzeko 16 urtetik beherakoentzako XXI. Lehiaketa Landako Gunean.** *Antolatzailea: Errotari Mikologia Elkartea.*

**12:00** **Durangar jaioberriei ongi etorri ekitaldia. Landako Gunean.**


ERROTARI MIKOLOGIA ELKARTEA




**Mus, tute, briska, igel, billar eta ping-pong txapelketen hasiera nagusientzat.** Izen ematea doan izango da, **urriaren 3tik 8ra arte**, adinekoentzat udal egoitzako kafetegian. Plazak zozketa bidez emango dira **urriaren 9a**n. *Laguntzailea: Cafés Baqué.*




**20:00** **Kalejira Santa Anatik txosnagunera.** *Antolatzailea: Txosna Batzordea.*

**20:30** **Txupinazoa txosnagunean.**

**22:00** **Kontzertuak txosnagunean: KONORTE, PARKATU, PENNY FLECK eta LARU.**


LARU TALDEA

# 12 ASTEAZKENA



# TXUPINAZOA

**VIII. Argazki lehiaketaren hasiera.**
Argazkiak aurkezteko epea **urriaren 24ean, 24:00ak arte,** f.stop.durango@gmail.com emailera bidaliz.
*Antolatzailea: F-Stop Durangoko Argazki Taldea.*

INFORMAZIO GEHIAGO, INSTAGRAMEN:
fstopdurango

**Durango Rugby Taldearen eguna.**
Mozorroa: *“MEXIKO, POLITA ETA MAITEA”*

**12:00** Kalejira DURANGOKO ORFEOIArekin alde zaharretik.

**17:00** Kuadrilen konzentrazioa San Fausto auzoan. Etorri kamisetekin jantzita eta parte hartu! Sariak eta bonoak banatuko dira! Animazioa. Jaiak badatoz!

**18:00** Patxikotxuri ongi etorria San Fausto auzoan. Ondoren koadrilen jaitsiera, Landako Gunetik etorritako Pantxikerekin, Udaletxeko plazaraino SUGARRI fanfarrea, buruhandiekin eta animatzailearekin.

**19:00** Txupinazoa Udaletxeko plazan. 2022ko txupineroak: MARISA BARRENA eta AMPARO EREÑAGA. Gora San Fausto Jaiak!

**19:30** Kale animazioa SUGARRI fanfarrearekin alde zaharretik.

**20:30** Kontzertua: DIENTES DE LUNA Andra Marian.

**21:00** EGAN taldea Ezkurdin.

**22:00** DJ maratoi herrikoia txosnagunean.



SUGARRI FANFARREA



DIENTES DE LUNA TALDEA



EGAN TALDEA




**07:00** **Diana txistulariekin.**

**07:30** **Zezenak Dira dultzaineroekin.**

**10:00** **Paella txapelketa San Fausto auzoan.** Paellak aurkezteko epea: 14:00etan. Sari banaketa 14:30etan. ***Antolatzailea: Centro Social San Fausto.***

**10:30** **Eixu artisau azoka txosnagunean.**

**11:00** **Meza nagusia San Fausto elizan.**

**11:00–14:00** **Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean.** (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**11:00–14:00** **Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean.** (Euria bada, Nevers ikastetxean).

**12:00** **Zirkoa eta antzerkia XABI LARREAren eskutik “Up!!!” ikuskizunarekin Ezkurdiko Kioskoan.** (Euria bada, Kurutziaga ikastolan).

**12:00** **Haur eta familientzako Kalaka egurrezko jolasak txosnagunean.**

**12:00** **Kalejira txistulariekin.**

**12:30** **Txalaparta, ohorezko aurreskua eta artopilen banaketa udaletxeko plazan. Ondoren, DURANGOKO DANTZARIAK.** (Euria bada, Andra Mariako elizpean).

**12:30** **Paella txapelketa txosnagunean** (14:00etan sari banaketa).


ZIRKOA ETA ANTZERKIA XABI LARREA


DURANGOKO DANTZARIAK

**16:00** **Haurrentzako ZEZENTXUAK (zezen puzgarriak, zezenak gurpilekin eta animazioa) San Fausto auzoan.**

**16:00–19:00** **Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean.** (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**17:00** **Mañaria errekaren jaitsiera Tabiratik.** *Antolatzailea: Txosna Batzordea.*

**17:30** **Txokolatada eta haurrentzako jolasak San Fausto auzoan.** *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*

**18:00** **Dantzaro ERDIZKA LAUETAN taldearekin Ezkurdin.**

**18:30** **"Mute" zirko eta antzerki ikuskizuna, ORAIN BI konpainiarekin Aurora Abasolo parkean.** (Euria bada, Kurutziaga ikastolan).

**19:00** **Antzerkia San Agustin Kultur Gunean YLLANA konpainiaren "Greenpiss, un desmadre eco-ilógico" ikuskizunarekin.** Sarrera: 12 €.

**20:00** **Festa poteoa San Fausto auzoan.**

**21:00** **Talent Show Lehiaketa. Utzi lotsa etxean eta erakutsi zure abilezia ezkutuak Ezkurdiko eskenatokian (magia, dantza, alpargata jaurtiketa,... eta bururatzen zaizuna). Ondoren, animazioa.**

**21:30** **Kontzertua: KAI NAKAI Andra Mariako elizpean.**



ORAIN BI ANTZERKI TALDEA



YLLANA ANTZERKI TALDEA



KAI NAKAI




**10:00 Haurrentzako arrantza txapelketa Pinondon eta San Agustinen.** *Antolatzailea: Sociedad de caza y pesca.*

**11:00–14:00 Haur parkea Ibaizabal parkean.** (Euria bada, Nevers ikastetxean).

**11:00–14:00 Zirko tailerrak Andra Mariako elizpean.**

**11:00–14:00 Mobilidadeko jolasak Intxaurrondo Kultur eta Gazteentzako gunean.** (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**16:00 Haurrentzako Herri Kirolak Ibaizabal parkean.**(Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**17:00 "Hemendikara" zirko eta antzerki ikuskizuna ZIRIKA ZIRKUS konpainiarekin Aurora Abasolo parkean.** (Euria bada, Kurutziaga ikastolan).

**18:30 Elektrotxaranga MOTXAILA BAND kalez kale.**

**19:00 DJ musika animazioa guztientzat San Fausto auzoan.**


ZIRIKA ZIRKUS


HARROBI DANTZA BERTIKALA



LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS



AINKE TALDEA



ALERTA TALDEA

**20:00** **“eRRe. Aldarri bat bertsoz!” ikuskizuna txosnagunean.**

**20:00** **“Dendu” dantza eta musika ikuskizuna HARROBI dantza bertikala eta OREKA TX-ekin Santa Anan.**

**21:00** **Zezensuzkoa San Fausto auzoan.**

**21:00** **Herriko musika taldeen kontzertua: AINKE eta ALERTA Andra Mariako elizpean.**

**22:00** **Kontzertuak txosnagunean: AÑUBE, VULK eta LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS.**

**22:30** **Bertsolariak San Agustin Kultur Gunean: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Saioa Alkaiza, Aitor Bizkarra, Miren Amuriza, Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Unai Iturriaga.** Gonbidapen zenbakituak Arte eta Historia Museoko leihatilan, **urriaren 4tik aurrera** eta leku guztiak bete arte.

**22:30** **Kontzertua: GUNS & ROSES-i TRIBUTOA (GANSOS ROSAS) Ezkurdin.**



GANSOS ROSAS TALDEA




**07:00** **Diana txistulariekin.**

**07:30** **Zezenak Dira dultzaineroekin.**

**08:30** **Sukalki txapelketa Landako Gunean.** Izen ematea eta informazioa Intxaurrondon **irailaren 21etik aurrera**, plazak bete arte. *Laguntzaileak: Hiper Eroski Abadiño eta Cafés Baqué.*

**11:00–14:00** **Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean.** (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**11:00–14:00** **Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean.** (Euria bada, Nevers ikastetxean).



**11:00** **Umeentzako Goitiberen Jeitsiera probak Tabira auzoan.**

**11:00** **Umeentzako zeramika tailerra Intxaurrondon.** *Antolatzailea: Dukerami Zeramika elkartea.*

**11:30** **BEGI ARGIAK abesbatzak emanaldia eskainiko du J.M. Barandiaran egoitzan.**

**11:30–12:30** **Kamiseta banaketa hainbat gunetan.** *Antolatzailea: Txosna Batzordea.*

**12:00** **Trikipoteoa Santa Anatik txosnagunera eta pintza jolas herrikoia.**

**12:00** **Kalejira txistulariekin.**

**12:00** **Kalejira BERGARAKO ERRALDOIAK alde zaharretik.**

**12:00** **Patxikotxuren kalejira LANDAKO ESKOLArekin Ezkurditik udaletxeraino eta ohorezko aurreskua.**

**12:30** **Txupinazo txikia LANDAKO ESKOLAren eskutik udaletxe plazan.**

**13:30** **BEGI ARGIAK abesbatzarekin kalejira alde zaharretik.**

**14:00** **Herri bazkaria San Fausto auzoan.** *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*

**14:30** **Gazte bazkaria txosnagunean.**

**16:00–19:00** **Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean.** (Euria bada, Nevers ikastetxean).

**16:00** **I. Goitiberen Jeitsiera Tabira auzoan.**

**16:30 Bingo musikatua txosnagunean.**

**16:30 Musika animazioa STRAGOS DJarekin Landako Gunean.**

**17:00 Jolas eguna: haurrentzako bitsa jaia Murueta Torre auzoan.** *Antolatzailea: Murueta Torre Auzo Elkartea.*

**18:00 "Zoro gaitezen" ikuskizuna TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON pailasoekin Santa Ana plazan.** (Euria bada, Kurutziaga ikastolan).

**18:00 Kantu jira alde zaharretik: BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIAK.**

**18:00 Karropoteo transmaribibolloa Pinondotik. Ondoren, 19:30etan, Gazte karropoteoa txosnagunetik.** *Antolatzailea: Txosna Batzordea.*




GOLDEN APPLE QUARTET TALDEA

**19:30 "Kimera" zirko ikuskizuna LA BANDA ZIRKO taldearekin Aurora Abasolo parkean.** (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**20:00 Música a capella: GOLDEN APPLE QUARTET taldea "Gran selección" ikuskizunarekin Andra Marian.**

**21:00 Zezensuzkoa San Fausto auzoan.**

**21:30 Animazioa alde zaharretik GHANAKO TXARANGArekin.**

**22:00 Dantzaldia San Fausto auzoan.** *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*

**22:00 Orkestra AZABACHE Madalena auzoan.**

**22:00 DJ-ak txosnagunean: DJ HIJA DEL NOPAL eta DJ TXILLARDEGI.**

**23:00 Kontzertua ZEA MAYS taldearekin Ezkurdin.**

**00:00 Argazki erraldoia txosnagunean.**

**00:00–03:00 Stand informatiboa PROGRAMA TESTING – AI LAKET!! txosnagunean.** *Antolatzailea: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Droga-menpekotasunen Prebentziorako Arloa.*



ZEA MAYS TALDEA




**07:00** **Diana txistulariekin.**

**07:30** **Zezenak Dira dultzaineroekin.**

**10:00–13:00** **San Fausto haur marrazki lehiaketa San Fausto auzoan.** Izen-ematea: 10:00-12:00. Adina: 6 urtetik 17ra. *Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*

**11:00** **Xake txapelketa umeentzat Andra Marian. Aldibereko partidak.** *Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.*

**11:00–14:00** **Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean.** (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**11:00–13:00** **Haurrentzako tailerrak Ibaizabal parkean.** (Euria bada, San Antonio ikastetxean). *Antolatzailea: Iñurri Eskaut Taldea.*

**11:00–14:00** **Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean.** (Euria bada, Nevers ikastetxean).

**12:00** **Jolas eguna, ping-pong txapelketa eta 3*3 saskibaloi txapelketa San Inazio Parkean.** *Antolatzailea: Auzo Alai elkartea (Madalena).*

**12:00** **Poniak eta zaldiak Landako Guneko parkean.** (Euria bada, ez da egingo).

**12:00** **Kalejira txistulariekin.**

**12:00** **Arte martzialen kalejira Ezkurditik hasita, alde zaharretik eta erakustaldia Aurora Abasolo parkean.** *Antolatzailea: Club Deportivo Wado Kan Karate-Ninjutsu.*



**12:30** **Erromeria LUHARTZ taldearekin Ezkurdin.**

**13:00** **"Durango Uria" XXII. margo lehiaketaren sari banaketa Ezkurdiko erakusketa aretoan.** ***Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkartea.***

**13:15** **LOS 5 BILBAINOS taldea Andra Mariako elizpean.**

**14:00** **Nagusientzako bazkaria Landako Gunean orkestrak girotua.**

**16:00** **Tortilla txapelketa San Fausto auzoan.** ***Antolatzailea: Centro Social San Fausto.***

**16:00** **Dirtjump, trialsin, roller eta scooter erakustaldia Intxaurrondon.** (Euria bada, Landako Gunean).

**16:30** **Umeentzako atletismoa Ibaizabal parkean: jolas dibertigarriak (hesiak, erreleboak, gymkana).** Izen-ematea: durangokiroltaldea@gmail.com ***Antolatzailea: Durango Kirol Taldea.*** (Euria bada, Nevers ikastetxean).

**17:00** **Jolas eguna: talo tailerra eta txitxiburduntzia Otamotzena parkean.** (Eguraldi txarrarekin, Kurutziaga ikastolan).



LOS 5 BILBAINOS TALDEA

**17:30** **Senegaleko erritmoak M´LOMP elkartearekin Ezkurditik hasita.**

**18:00** **ZIRKINIK BEZ musika taldea Otamotzena parkean.** (Eguraldi txarrarekin, Kurutziaga ikastolan).

**18:00** **Haurrentzako ikuskizuna IRATXOEN KANTU SEKRETUA Andra Mariako elizpean.**

**19:00** **Kontzertua Musika eskolan: "INÉDITAS: emakume konpositoreen ahots ikustezina".**

**19:30** **Erromeria LUHARTZ taldearekin Ezkurdin.**

**20:00** **Monologoak GURUTZE BEITIA eta GORKA AGINAGALDErekin Andra Mariako elizpean.**

**22:00** **Dantzaldia San Fausto Auzoan.**



IRATXOEN KANTU SEKRETUA



ZIRKINIK BEZ TALDEA




**19:00** **San Agustin Kultur gunean break dance eta ikus-entzunezko ikuskizuna "Su(i)rrealismo" CIRCLE OF TRUST eta LOGELA MULTIMEDIAren eskutik.**
Sarrerak: 8 € (Gazte-txartelarekin: 6 €).




**17:00** **GURUTZE GORRIAren ate irekien jardunaldiak Ibaizabal parkean.** Simulazioa **19:00etan.**
(Euria bada, San Antonio Ikastetxean).

**17:00** **Jolas eguna San Fausto auzoan.**

**18:30** **"White Botton" ohe elastikoen ikuskizuna RAMIRO VERGAS-ekin Aurora Abasolo parkean.**
(Eguraldi txarrarekin, Nevers ikastetxean).

**19:00** **Tortilla txapelketa txosnagunean** (20:30etan sari banaketa).

**20:00** **Durangoko abesbatzen kontzertua Santa Ana eleizan: DURANGOKO ORFEOIA, BOGORODITSIE, IZAR GAZTEA eta BEGI ARGIAK.**


CIRCLE OF TRUST ETA LOGELA MULTIMEDIA


MERINA GRIS TALDEA


LA CASA AZUL TALDEA

**21:00** **Zezensuzkoa San Fausto auzoan.**

**21:00** **Kontzertua BART SAX taldearekin Andra Mariako elizpean.**

**22:00** **Kontzertuak txosnetan: PEIO ETA ITSUA, J MARTINA eta MERINA GRIS.**

**23:00** **Kontzertua LA CASA AZUL taldearekin Ezkurdin.**




**Txosna Guneko mozorro eguna.**
Mozorroa: *“DENBORAREN MAKINA”*

**07:00 Diana txistulariekin.**

**07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.**

**11:00 Xake txapelketa federatu eta federatu gabeentzat Ezkurdin.** Izen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago. *Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.*

**11:00–14:00 Umeentzako tailerrak PANPOTX taldearekin Andra Mariako elizpean.**

**11:00–14:00 Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean.** (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**11:00–14:00 Haur tailerrak ASEBIER elkartearen eskutik Barandiaran kalean.**

**11:00–14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean.** (Euria bada, Nevers ikastetxean).



**12:00 Kalejira txistulariekin.**

**12:00 Kalejira trikitilariekin TXIRI TXIRI taldearen eskutik.**

**12:00 Patata tortillaren XIII. txapelketa Landako Gunean.** Mailak: 15 urtetik beherakoak / 16 urtetik gorakoak. Izen-ematea eta informazioa: Intxaurrondon **urriaren 3tik aurrera,** plazak bete arte.

**12:30 XAIBOR disko-festa haurrentzako berbena Ezkurdin.**

**14:30 Elkartasun bazkaria txosnagunean. Txartelak Mesoi Barrian eta Intxaurren. Ostean, elkartasun argazkia.**

**16:00–19:00 Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean.** (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**16:00 XXVI. Larrasoloetako lagunarteko xake txapelketa federatuentzat Ezkurdi.**
*Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.*

**17:00 Animazioa trikitixarekin pertsona nagusien egoitzetatik.**

**17:30–19:00 Astronomia eskulan tailerrak eta ur suzirien jaurtiketa Zuhatzola parkean.** (Euria bada, ez da egingo). *Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkartea.*

**18:00 Dantza ikuskizuna "Gazte" OINKARI DANTZA TALDEA & HIKA TEATROA-ren eskutik Aurora Abasolo Parkean.** (Eguraldi txarrarekin, Kurutziaga ikastolan).

**18:30 Kalejira DJ REIMY-rekin, txosnagunean hasita.**

**18:30 Taldekako mozorro desfilea Madalenatik Andra Mariaraino. Bukaeran sari zozketa.** Izen-ematea: **urriaren 1etik 19ra** Intxaurrondon. (Euria bada, Andra Marian).

**18:30 Kalejira SUGARRI fanfarrearekin Madalenatik.**

**20:00–22:00 AICE DJ-a Andra Marian.**

**21:00 Behaketa astronomikoa Zuhatzola parkean.** (Euria bada, ez da egingo). *Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkartea.*

**21:00 Zezensuzkoa San Fausto auzoan.**

**22:00 Orkestra DIAMANTE Ezkurdin.**

**22:00 DJ-ak txosnagunean: DJ REIMY, BEÑAT eta MAIXA.**

**23:00 AICE DJ-a Andra Mariako elizpean.**

**00:00–03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa txosnagunean.** *Antolatzailea: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Arloa.*


OINKARI DANTZA TALDEA & HIKA TEATROA


ORKESTRA DIAMANTE


XAIBOR


DJ REIMY




**07:00** **Diana txistulariekin.**

**07:30** **Zezenak Dira dultzaineroekin.**

**11:00** **Mañaria errekaren garbiketa.**

**11:00–14:00** **Txikientzako haur parkea Barandiaran kalean.** (Euria bada, Landako Gunean).

**11:00–14:00** **Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean.** (Euria bada, Landako Gunean).

**11:45** **TABIRA MUSIKA BANDAK emanaldia eskainiko du J.M. Barandiaran egoitzan.**

**12:00** **Jolas eguna Tabira parkean.**

**12:00** **Kalejira txistulariekin.**

**12:00** **Haur marrazki lehiaketaren sari banaketa San Fausto auzoan.**
*Antolatzailea: Centro Social San Fausto.*

**12:00** **Poniak eta zaldiak Ibaizabal parkean.** (Euria bada, ez da egingo).

**12:00–14:00** **Arku tirorako gunea Ibaizabal parkean.** (Euria bada, Landako Gunean).

**12:30** **Herri kirolak Ezkurdin.**

**13:15** **Kontzertua TABIRA MUSIKA BANDArekin Andra Mariako elizpean.**


TABIRA MUSIKA BANDA






**17:00** Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa L´ATELIER DANTZA ESKOLA-ren eskutik Ezkurdin.

**18:00** MARIATXI INTERNACIONAL DE MEXIKO Andra Mariako elizpean.

**18:30** Kalejira IRULITZA fanfarrearekin alde zaharretik.

**19:30** Patxikotxuri eta jaiei agur esateko GIGANTES DE LUZ ikuskizuna udaletxeko plazatik hasita eta tren-kotxera zaharretaraino.

**20:00** Jaien bukaera su artifizialekin tren-kotxera zaharretan.


MARIATXI INTERNACIONAL DE MEXIKO


IRULITZA FANFARREA




**20:00** Durango Txistu Kontzertua 2022 Landako Gunean. *Antolatzailea: Silboberri Txistu Elkartea.*






**54. Umeen euskal jaia.**
*Antolatzaileak: Tronperri Dantza Taldea eta Txoritxu Alai Dantza Taldea.*

**12:00** **Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, kalejira egingo dute eta ondoren alardea Ezkurdi plazan.** (Euria bada, Landako Gunean).